



**AKTEA**  
**BERMEOKO UDALEKO OSOKO BILKURA**  
(2026-04-30/04)

<b>Bilkuraren izaera:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia:</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2026-04-30
<b>Lekua:</b>	Udaletxeko osoko bilkurako areto nagusia
<b>Hasiera-ordua:</b>	08:00
<b>Amaiera-ordua:</b>	08:18

**Bertaratuak**

**Alkate-Presidentea:** Nadia Nemeh Shomaly (EH BILDU)

**Zinegotziak:**

Zigor Uriondo Arrue (EH BILDU)

Endika Etxebarria Telleria (EH BILDU)

Arantza Ormaza Tarantino (EH BILDU)

Xabier Ortuzar Butron (GUZAN)

Miren Karmele Gabantxo Uriagereka (GUZAN)

Maite Caruezo Ugalde (GUZAN)

Iker Bilbao San Nicolas (GUZAN)

Alazne Zumeta Garro (EAJ-PNV)

Kepa Zumeta Garro (EAJ-PNV)

Ander Garate Ormaza (EAJ-PNV)

Jose Luis Arruza Alboniga-Mayor (EAJ-PNV)

Ixone Soroa Güenaga (EAJ-PNV)

Idoia Platas Arenaza (EAJ-PNV)

Ainhoa Jayo Madariaga (EAJ-PNV)

**Bertaratu ez direnak:**

Victor Uriarte Anasagasti (EH BILDU)



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Fecha: 05/05/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



Ibon Legarreta Erkiaga (EAJ-PNV)

**Idazkaria:** Gotzon Bareño Duñabeitia

### Aztergaiak

1. Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2026-03-26 OB (03)
2. Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.
3. Berdintasun teknikari lanpostua sortzea onartzea.
4. Bermeoko Udal Lanpostuen Zerrenda eguneratzea. Lanpostu berriak sortzea onartzea.
5. 21.2 exekuzio unitatean egindako eraikitzeen ondorioz, 7 eta 10 partzei emandako kale zenbakiak aldatzea eta 15 partzelari kale zenbakia ematea onartzea
6. 2025/4.hiruhilabeteko hornitzaileei ordainketen berri ematea.
7. 2025/4.hiruhilabeteko berankortasun datuen berri ematea.
8. 2025/4.hiruhilabeteko fakturen berri ematea.
9. 2026ko 841-1325 eta 1326-2696 zenbakidun alkatetza dekretuen berri ematea.
- 10.Tokiko Gobernu Batzarreko erabakien berri ematea: martxoaren 3,10,16,24 eta apirilaren 14 eta 21.
- 11.Eskari eta itaunak.

Presidenteak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkura hasi du eta deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaidza honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA: 2026-03-26 OB (03)

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=69&t=7>



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

#### Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Fecha: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaada:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



Batzarkideek 2026ko martxoaren 26ko 03/2026 akta aho batez onartzea erabaki dute.

## 2.-BATZARKIDEEK GAI ZERREDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=69&t=23>

Batzarkideek ez dute adierazi gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukatela.

## 3- BERDINTASUN TEKNIKARI LANPOSTUA SORTZEA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=69&t=32>

### Xedea

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako teknikari lanpostua Udaleko lanpostuen zerrendan sortzea.

### Aurrekariak

Lehenengoa: 2005eko martxoaren 2ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Eusko Legebiltzarrak onartutako otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea.

Bigarrena: 2022ko martxoaren 17ko 55. zenbakidun Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketari buruzko martxoaren 3ko 1/2022 Legea argitaratu zen.

Hirugarrena: 2023ko martxoaren 13ko 20230001093 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketari buruzko martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 7. artikuluan eta 10. artikuluetan ezarritakoaren arabera Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako teknikaria kontratatzea erabaki zen.

2023ko maiatzaren 18ko 20230002347 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, 16096687E NAN zenbakiduna Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Teknikari izendatzea erabaki zen 2023ko maiatzaren 15etik aurrera eta %50eko lanaldian.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

#### Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea: Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



2023ko irailaren 1eko 20230003478 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez Bakarria: 2023ko maiatzaren 18ko 20230002347 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez izendatutako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako teknikariari lanaldia %100era igotzea erabaki zen.

2024ko abenduaren 27ko 20240006735 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, 2023ko martxoaren 13ko 20230001093 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez onartutako Berdintasun sailean garatu beharreko aldi baterako programaren iraupena beste urte birako luzatzea, erabaki zen, hau da, 2026ko maiatzaren 18ra arte.

## Argudioak

Lehenengoa: Berdintasun teknikari lanpostua sortzeak indarrean dauden legezko betebeharrei eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioak benetan betetzen direla bermatzeko beharrari erantzuten die.

Bigarrena: Martxoaren 3ko 1/2022 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bigarrenaz aldatzekoak, legearen ikuspegia zabaldu eta indarkeria matxistaren aurkako borroka berdintasun politiken ardatz nagusietako bat dela ezartzen du. Legearen izenburu berriak berak adierazten du helburua dela “emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko baldintzak bermatzea”.

Ildo horretan, lege beraren 7. artikulua, tokiko administrazioaren eginkizunei buruzkoak, ezartzen du udalek, beren eskumen-esparruan, berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurkako politiken garapenean parte hartu behar dutela, besteak beste, honako jarduerak hauek sustatuz: “sentsibilizazio jarduerak egitea”, “diskriminazio egoerak hautematea eta ezabatzeko neurriak hartzea”, “programak eta zerbitzuak sortzea diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek eskubideetarako sarbidea bermatzeko”, eta “erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzeta eta koordinazio bideak ezartzea”.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan, “Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuetarako erakundeen arteko koordinazio-protokoloa Euskal Autonomia Erkidegoan” 2023an eguneratutakoak zehazten du administrazio publikoek (tokiko administrazioak barne) indarkeria matxistaren prebentzian, detekzioan, koordinazioan eta biktimen arreta



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

### Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaada:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



integralean bete behar duten eginkizuna. Dokumentuak ezartzen du erakundeen jarduna "erakundeen arteko koordinazioan, lankidetzan instituzionalean eta esku-hartze integral eta espezializatuan oinarritu behar dela, biktimen babes eraginkorra eta arreta egokia bermatzeko", eta horretarako administrazioen arteko koordinazio egiturak, protokolo operatiboak eta arreta-sarearen funtzionamendu bateratua garatzea aurreikusten du.

Horrenbestez, aipatutako araudiak agerian uzten du tokiko administrazioek zeregin aktiboa dutela berdintasun-politiken garapenean eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioan, koordinazioan eta arretan. Eginkizun horiek modu egituratuan eta eraginkorrean garatu ahal izateko, beharrezkoa da udal administrazioak berdintasunaren arloko egitura tekniko espezializatu izatea. Horretarako, ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen berdintasunerako teknikari lanpostu egonkorra izatea, politika publiko horien plangintza, koordinazioa eta jarraipena bermatzeko, indarkeria matxistaren prebentzioa eta arreta instituzionala modu sistematikoan garatzeko, eta udal jarduera guztietan genero-ikuspegia modu eraginkorrean txertatzen laguntzeko.

Legearen xedea da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, eta zenbait neurri arautzea bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonek aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko, eta, bereziki, emakumeen autonomia eta ahalduntzea bultzatzeko eta emakumeek gizartean, ekonomian zein politikan duten posizioa sendotzeko, egiturazko desberdinkeria eta sexuan oinarritutako diskriminazio-modu oro ezabatzeko, emakumeen aurkako indarkeria matxista barne dela. Azken batean, gizarte berdinezale eta indarkeria matxistarik gabeko bat lortu nahi da, non pertsona oro libre izango den, hala eremu publikoan nola pribatuan, bere gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko, ohiko rolek sexuaren arabera ezartzen dituzten mugak izan gabe; gizarte bat, non berdina aintzat hartu, baloratu eta bultzatuko diren emakumeek eta gizonek dituzten portaerak, jomugak eta beharrianak.

Hirugarrena: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketari buruzko martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 7. artikuluan tokiko administrazioaren eginkizunak finkatzen dira:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



**"7. artikulua.- Tokiko administrazioaren eginkizunak:**

1.– Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, eta lege honen helburuetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek funtzio hauek bete behar dituzte, bai banaka, bai partaide diren mankomunitate, kuadrilla edo elkartzeen bidez edo lege honen xedeetarako eratzten dituztenen bidez:

a) *Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea, bere administrazio-jardueran genero-ikuspegia txertatzeko.*

b) *Ekintza positiboko neurriak exekutatzea toki-eremuan.*

c) *Toki-eremuan plangintza egitea, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruan eta foru-aldundien lurralde-plangintzaren esparruan, eta lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan xedaturikoa zehaztuko eta lurralde-errealitatera egokituko duten arauak, jarraibideak eta gidalerroak sortzea.*

d) *Estatistikak egokitzea eta eguneratzea, toki-erakundeek esku hartzen duten eremu guztietan emakumeek eta gizonen zer egoera bereizgarri duten jakiteko.*

e) *Emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea toki-eremuan.*

f) *Toki-eremuan sentsibilizazio-jarduerak egitea, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriez.*

g) *Jarraipena egitea toki-araudiari eta haren aplikazioari, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera den.*

h) *Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientazioa ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz eta diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko eskubideetarako sarbidea bermatzeko programa eta zerbitzuei buruz.*

i) *Diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek eskubideetarako sarbidea dutela bermatzeko eta emakumeen ahalduntzea bultzatzeko programak edo zerbitzuak ematea edo baliabideak ezartzea, hala nola ahalduntze-eskolak,*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



*emakumeen etxeak, sare komunitarioak eta udalez gaindikoak edo beste batzuk, zerbitzu horien izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.*

*j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, duten izaera dela-eta udal mailan eskaini beharrekoak direnean.*

*k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakunde horien xedeek edo funtzioek tokian-tokian emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.*

*l) Toki-eremuan gertatzen diren sexuan oinarritutako diskriminazio-egoerak hautematea, eta egoera horiek ezabatzeko neurriak hartzea.*


*m) Bakoitzari bere eskumen-eremuan agindu dakioken beste edozein funtzio.*

2.– Toki-administrazioei aurreko paragrafoan aipatzen diren funtzioak benetan betetzen laguntzeko, Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta foru-administrazioek laguntza emango diete; bereziki, gaitasun ekonomiko eta kudeaketa-gaitasun txikien dutenei.

3.– Euskal botere publikoek erraztu egingo dute gaitasun ekonomiko eta kudeaketa-gaitasun txikieneko toki-administrazioek mankomunitateak, kuadrillak eta elkarteak sor ditzaten, artikulua honen lehenengo apartatuan aipaturiko eginkizunak benetan gauzatze aldera

Betebehar horiek egitura tekniko espezializatua, iraunkorra eta zeharkako koordinaziorako gaitasuna eskatzen dute, funtzio horiek ezin baitira behar bezala garatu berdintasunerako teknikari baten presentzia profesionalik gabe.

Laugarrena: Beraz, Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeke dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, administrazio bakoitzak gutxienez entitate, organo edo administrazio-unitate bat izan dezan, bakoitzaren jardun-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, planifikatu eta ebaluatzeko eta horiei buruz aholku emateko, emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzko politikak barne.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



Bosgarrena: Aipatutako 3/2007 Lege Organikoaren 15. artikulua Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak arautzen ditu. Ezarritakoaren arabera, Foru-aldundiek eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsi behar dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomi eta giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako ente publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla bermatuz. Udalek banaka zein kide diren edo ondore horietarako osa ditzaketen mankomunitateen bidez egin ditzakete jarduketa horiek. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntza tekniko eta dagokion foru-aldundiaren laguntza ekonomikoa izango dituzte, batez ere ahalmen ekonomiko eta kudeaketa-ahalmen txikia dutenek.

Seigarrena: Ondorioz, legean ezarritakoa bermatzeko, ezinbestekoa da Bermeoko Udalak Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako teknikari lanpostua egituraren sartzeara, udal plantillan eta lanpostuen zerrendan plaza eta lanpostua sortuz.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketari buruzko martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, gutxienez honako zeregin hauek bete beharko ditu:

- Berdintasunaren arloko plangintza eta jarraipen- eta ebaluazio- mekanismoak diseinatzea, eta lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan xedaturikoa zehaztuko eta dagozkien esku-hartze esparruetara egokituko duten arauak, jarraibideak eta gidalerroak sortzea.
- Ekintza positiboko neurri espezifikoak diseinatzea eta sustatzea.
- Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen-lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan.
- Bakoitzak bere administrazio sailei eta beren mendeand dauden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta haiekin lankidetzan aritzea



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



- Bakoitzari dagokion lurralde-eremuan bizi diren herritarrentzat sentsibilizazio-jarduerak egitea emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez, diskriminazio anizkoitzeko egoerak eta diskriminazio hori sortzen duten faktoreak nola gurutzatzen diren aintzat hartuta.
- Bakoitzak bere administrazioan programa edo zerbitzu espezifikoak egokitzeko eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek eskubideetarako sarbidea dutela bermatzeko.
- Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak sortu eta egokitu daitezten sustatzea eta horretarako proposamenak egitea.
- Bakoitzaren lurralde-eremuan gertatzen diren diskriminazio-egoerak hautematea, eta egoera horiek ezabatzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakunde horien xedeek edo funtzioek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Bakoitzaren administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrizanak diagnostikatzea, eta kasu bakoitzean zer prestakuntza mota behar den eta prestakuntza hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak zein diren proposatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskumenak dituzten entitate, organo eta unitateekin elkarrizketan aritzea, eta, bereziki, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin.
- Lege honetan jasotzen den edo bakoitzari bere eskumen-eremuan agindu daskiokeen beste edozein funtzio.

Zeregin horiek egiteko, gaitasun profesional aurreratuak behar dira berdintasunaren eta genero-araudiaren arloan, udalentsako gida espezializatuek adierazten dutenez.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



Zazpigarrena: Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioari eta arretari dagokionez, administrazio publikoen betebeharrak araudi espezifikoei jasotzen dituzte:

Estatuko mailan, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzkoak, administrazio publiko guztiei esleitzen dizkie prebentzio, sentsibilizazio, koordinazio eta arreta integraleko eginkizunak, eta botere publikoen jardunak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean "neurri integralak garatzea, prebentzioa, detekzioa, babesa eta arreta koordinatua bermatzeko" helburu izan behar duela ezartzen du.

Bestalde, Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Itunak (Pacto de Estado contra la Violencia de Género, 2017) bereziki azpimarratzen du tokiko administrazioek duten zeregina, udal erakundeak "biktimetatik gertuen dauden administrazio publikoak" direla adieraziz, eta, ondorioz, prebentzian, detekzio goiztiarrean eta arreta integralean funtsezko eginkizuna dutela. Ildo horretan, abuztuaren 3ko 9/2018 Errege Lege Dekretuak, genero-indarkeriaren aurkako Estatuko Ituna garatzeko presazko neurriei buruzkoak, tokiko administrazioen eskumenak indartu zituen, eta udalek indarkeria matxistaren aurkako politiketan parte hartzeko eta biktimen arreta hurbila bermatzeko duten erantzukizuna berretsi zuen.

Zortzigarrena: 2023ko martxoaren 1eko 51. zenbakidun Estatuko Aldizkari Ofizialean, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legea argitaratu da. 14. artikuluan arautzen da LGTBI pertsonen tratu- eta aukera-berdintasuna lan eremuan:

"Las Administraciones públicas, en el ámbito de sus competencias, deberán tener en cuenta, en sus políticas de empleo, el derecho de las personas a no ser discriminadas por razón de las causas previstas en esta ley."

Artikulu horretan administrazio publikoetan hartu beharreko neurri egokiak eta eraginkorrak zehazten dira.



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Fecha: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



Ondorioz, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legean aurreikusitako neurriak ere berdintasun arloan garatu beharko dira.

Bederatzigarrena: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketari buruzko martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 10. 4. artikuluan honako hau xedatzen da:

*“4.- Foru- eta toki-administrazioei dagokie beren erakundeetan eta departamentuetan berdintasunerako administrazio-unitateak sortzea eta arautzea, bakoitzaren eskumenen esparruan.”*

### Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

BAKARRA: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketari buruzko martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 7. artikuluan eta 10. artikuluetan ezarritakoaren arabera Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako teknikari lanpostua udal egituraren sortzea onartzea, plantillan eta lanpostuen zerrendan plaza eta lanpostua sortuz.

### Emakumeen eta gizonen berdintasunerako teknikaria

**Azpitaldea: A2**

**Dotazioa: 1**

### LANPOSTUAREN MISIOA

Korporazioan generoen arteko berdintasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak antolatzea eta garatzea, kudeaketan eta erabakiak hartzean genero-ikuspegia aplika dadin sustatuz eta emakumeen eta gizonen arteko gizarte-baliabideak eta -onurak eskuratzeko eta kontrolatzeko aukera-berdintasuna zainduz, indarrean dagoen berdintasun-planaren eta legeriaren arabera.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

#### Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



**ERDI MAILAKO TEKNIKARIA****FUNTZIO OROKORRAK**

- Erdi mailako kategoriari dagokion kudeaketa, azterketa eta proposamenak, txostenak egitea, eta ebazpen-proposamenak egitea.
- Bere kargura dauden langileen lana zuzendu eta gainbegiratzea, administrazio-lanak kalitatez eta eraginkortasunez egin daitezen.
- Bere eskumeneko gaiei buruzko txostenak egitea
- Aholkularitza tekniko bere eskumeneko gaietan
- Ebazpen-proposamena duten espedienteak izapidetzen laguntzea
- Bere eskumeneko eremuan azterlanak egitea
- Sailaren lana koordinatzea, nagusiaren argibideen arabera, eta lana banatzeaz eta gainbegiratzeaz arduratzea.
- Beste sailekin lankidetzan aritzea beharrezkoa denean.

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO TEKNIKARI LANPOSTUAREN****FUNTZIO ESPEZIFIKOAK**

- Berdintasunaren arloko plangintza eta jarraipen- eta ebaluazio- mekanismoak diseinatzea, eta lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan xedaturikoa zehaztuko eta dagozkien esku-hartze esparruetara egokituko duten arauak, jarraibideak eta gidalerroak sortzea.
- Ekintza positiboko neurri espezifikoak diseinatzea eta sustatzea.
- Administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen-lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
 ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



- Udal sailei eta beren mendeand dauden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta haiekin lankidetzan aritzea
- Herritarrentzat sentsibilizazio-jarduerak egitea emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez, diskriminazio anizkoitzeko egoerak eta diskriminazio hori sortzen duten faktoreak nola gurutzatzen diren aintzat hartuta, bereziki indarkeria matxistaren prebentzioari lotutako sentsibilizazio eta informazio ekintzak garatzea.
- Programa edo zerbitzu espezifikoak egokitzeko eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek eskubideetarako sarbidea dutela bermatzeko, bereziki indarkeria matxistaren prebentzioari, arreta integralari eta biktimen babesari lotutako baliabideak garatzeko.
- Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak sortu eta egokitu daitezzen sustatzea eta horretarako proposamenak egitea..
- Udalerrian gertatzen diren diskriminazio-egoerak hautematea, eta egoera horiek ezabatzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.
- Udal langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrizanak diagnostikatzea.
- Udalerrian emakumeen eta gizonen egoerari eta genero-desberdintasunei buruzko diagnostikoak eta azterlanak egitea, generoari buruzko datuen bilketa eta estatistiken egokitzapena sustatuz.
- Sexu- eta genero-aniztasuna eta LGBTI+ pertsonen eskubideak sustatzeko politikak eta jarduerak bultzatzea, eta LGBTIfobiaren aurkako diskriminazio egoerak identifikatzen eta prebenitzen laguntzea.
- Hezkidetzak sustatzeko eta hezkuntza-eragileekin lankidetzak garatzeko koordinazio egituretan parte hartzea eta dagokion programazioa bultzatzea.
- Berdintasun arloan herritarren parte-hartzea sustatzea eta emakumeen elkarteekin, mugimendu feministarekin eta gizarte-eragileekin lankidetzak bultzatzea.
- Bere eskumen-eremuan agindu dakiokkeen beste edozein funtzio.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
 ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026  
 Lekua: Bermeon  
 Erregistro unidaidea:  
 Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



#### 4.-BERMEOKO UDAL LANPOSTUEN ZERRENDA EGUNERATZEA. LANPOSTU BERRIAK SORTZEA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=69&t=144>

##### Xedea

Bermeoko Udal Lanpostuen Zerrenda eguneratzea. Lanpostu berriak sortzea.

##### Aurrekariak

Lehenengoa: Antolakunde batean, faktore nagusi eta ezinbestekoa dira giza baliabideak kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko eta ezarritako helburuak lortzeko, pertsonak baitira erakundearen kapital nagusia. Hortaz, argi dago, administrazioetan giza-baliabideen kudeaketa egokia burutzea funtsezkoa dela, horrela lor baitezakegu administrazio eraginkorra eta efizientea izatea, hau da, gaitasuna duena herritarrei kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko.

Gizartea etengabeko eraldaketa batean murgilduta dabil, eta udalak dira herritarrengan hurbilen dauden antolakundeak, beraz, ezinbestekoa da horien antolakuntzak herritarren beharrezanetara egokitzea, giza baliabideen kudeaketa eraginkor baten bidez.

Lanpostuen zerrendak langileak egoki planifikatzea ahalbidetzen du, lanpostu bakoitzak helburu argi bat duela eta udalaren helburu estrategikoekin bat datorrela ziurtatuz. Horrek eskura dauden giza baliabideak hobeto antolatzen eta erabiltzen laguntzen du.

Bigarrena: Ezinbestekoa da, lanpostuen zerrendan dagozkion eguneratzeak gauzatzea, lanpostuen zerrenda baita erakundearen antolamendua egituratzeko erabili beharreko tresna, giza baliabideen arrazionalizazio eta optimizazioa lortu ahal izateko.

Hirugarrena: Langileria teknikariaren irizpena kontrakoa da, lanpostu berriak sortzeko nahitaezkoa baita aldez aurreko balorazioa egitea, Toki Administrazioako Funtzionarioen Ordainsarien Araubidea ezartzen duen apirilaren 25eko 861/1986 Errege Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera. Balorazio hori egiteko, lanpostu bakoitzaren eginkizunekin, zereginekin eta inguruabar bereziekin zerikusia duten elementu ebaluagarriak objektiboki zehaztu behar dira.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

##### Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



## Argudioak

Lehenengoa: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 74. artikulua ezartzen du:

“ 74. artikulua. Lanpostuak antolatzea.

Administrazio Publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabilia egituratuko dute beren antolamendua. Zerrenda horietan, gutxienez, honako hauek jaso behar dira: lanpostuen izena, lanbide-sailkapeneko taldeak, hala dagokionean, atxikita dituzten kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak. Erabilitako tresna horiek publikoak izango dira.”

Bigarrena: Apirilaren 2ko Tokiko Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzaileraren 90.2. artikulua xedatzen du Tokiko Entitateek haien erakundeko lanpostuen zerrenda egin beharko dutela, funtzio publikoaren inguruko oinarrizko legediak diotenaren arabera, eta Estatuari dagokiola Lanpostuen Zerrendak, lanpostuen deskripzioak eta berauen eraketarako bete beharreko baldintzak lantzeko oinarri hartu beharko diren arauak ezartzea.

Tokiko Erregimenaren eremuan indarrean dauden Xedapen Legalen Testu Zuzendua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 126.4. artikulua dio LPZak funtzio publikoaren oinarrizko legedian jasotako edukia izan beharko dutela eta apirilaren 2ko Tokiko Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzaileraren 90.2. artikuluan jasotako arauak oinarri hartuz garatu beharko direla.

Hirugarrena: Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. artikulua lanpostuen zerrendak arautzen ditu:

“45. artikulua.– Lanpostu-zerrendak.

1.– Lanpostu-zerrendak euskal administrazio publikoek beren barne-egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko baliatzen dituzten tresnak dira, baita langile-



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

### Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Fecha: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



beharrizanak zehaztu, lanpostuetan jarduteko betekizunak definitu eta lanpostu bakoitza sailkatzeko ere, efikaziari, efizientziari eta antolaketarako arrazionaltasunari buruzko irizpideen arabera.

2.- Lanpostu-zerrendek hauek hartuko dituzte barruan, batera edo berezita: aurrekontuan zuzkidura duten egiturako lanpostu guztiak, funtzionario, langile lan-kontratudun eta behin-behineko langileentzat erreserbatuta daudenak.

3.- Lanpostu-zerrendak eta haietan izandako aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo kasuan kasuko lurralde historikoko aldizkarian foru-aldundietakoak edo toki-erakundeetakoak direnean. Argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira ondorioak izaten lanpostu-zerrendak, non eta berariaz beste data bat zehazten ez den. Hori guztia, lanpostu-zerrenden barruko datuen transferentzia bermatze aldera.

{...}

6.- Nolanahi ere den, lanpostu-zerrenden bitartez sortu, kendu edo aldatuko dira lanpostuak. Era berean, egitura organikoa aldatu nahi izanez gero, aldi berean aldatu beharko dira dagozkien lanpostu-zerrendak edo haien ordezeko tresnak.

Apartatu honetan xedaturik dagoenerako, aldaketa hauek ez dira kontuan hartuko: eduki funtzionala ukitu gabe, lanpostuak adskribatuta dauden sail edo organoen izenari bakarrik eragiten diotenak.


7.- Lanpostu-zerrendak aurrekontu-aurreikuspenetara egokituko dira, halako moldez, non ezingo duten barnean hartu lanposturik baldin eta haren dotazioari ezin bazaio eutsi dagokion ekitaldirako aurrekontu-plantilletan aurreikusitako kredituekin.”

Halaber, 46. artikuluan lanpostuen zerrendaren edukia xedatzen da:

“46. artikulua.– Lanpostu-zerrenden edukia.

1.– Lanpostu-zerrendek datuok adieraziko dituzte, nahitaez, lanpostu bakoitzeko:

a) Lanpostuaren izena eta lanpostu bakoitzetik dagoen dotazio kopurua.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



- b) Zer sail edo zentro organikotara adskribatuta dagoen.
- c) Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, sailkapen profesionaleko talde edo azpitaldeak eta zer kidego, eskala edo beste sistematarako adskribatuta dauden, hala badagokio. Ez dago eragozpenik lanpostuak talde, azpitalde, kidego edo eskala batera baino gehiagotara adskribatzeko.
- d) Langile lan-kontratudunentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, bakoitzaren talde profesionala.
- e) Hornitzeko-sistema –dela lehiaketa, dela izendapen askea– eta, hala badagokio, zein administrazio publikotako langileei irekitzen zaien hornikuntza hori.
- f) Ordainsari osagarriak, lanpostuari lotuak.
- g) Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data.
- h) Dedikazio-araubidea.
- i) Lanpostuaren izaera berezia ala normalizatua den.

2.– Lanpostu-zerrendetan zehaztuko dira, era berean, dena delako lanpostuan jarduteko eskatzen diren berariazko betekizunak, hala badagokio.

3.– Lanpostu-zerrenden bitartez bakarrik ken daitezke lanpostuak edo dotazioak lan-kargak aztertzeke prozesuen ondorioz, langileen ordezkartzarekin negoziatu ondoren.”

Laugarrena: Lan-194/26jg erreferentziadun Langileria teknikariaren txostenean Emakume eta Gizonen berdintasunerako teknikari lanpostua sortzearen beharrezana justifikatu da eta honako hau proposatu da:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldatetari buruzko martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 7. artikuluan eta 10. artikuluetan ezarritakoaren arabera Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako teknikari lanpostua udal egituraren sortzea onartzea, plantillan eta lanpostuen zerrendan plaza eta lanpostua sortuz.

Kodea: 1114101



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



Saila: Berdintasuna

Lanpostua: Erdi mailako teknikaria

Eskala: Administrazio Orokorra

Izaera: Funtzionarioa

Azpitaldea: A2

Maila: 18

Berariazko osagarria: 21.488,70

Irakurmena eta idazmena: C2

Entzumena eta mintzamina: C2

Derrigortasun data: 2026-04-30

Bosgarrena: Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 187.artikuluak Hizkuntza-eskakizunak eta euskararen erabilera normalizatzeko planak arautzen ditu, eta 5. atalean honako hau xedatzen du:

“5.– Euskal administrazio publikoetako eta haien instituzio eta organismoetako lanpostu guztiek, unean uneko egoeraren arabera edo aldi baterakoak barne, dagokien hizkuntza-eskakizuna izango dute esleituta; horretarako, kontuan izango da zeintzuk diren lanpostu bakoitzaren ezaugarriak eta komunikazio-premiak, eta zer hizkuntza-trebetasun eska daitezkeen premia horiek betetzeko.”

Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 22. artikulua arabera, hizkuntza-eskakizunak zehazten du lanpostua betetzeko eta bertan jarduteko behar diren euskararen gaitasun-mailen multzoa. Lanpostu bakoitzak bere hizkuntza-eskakizuna izango du esleituta, eta eskakizun hori, derrigortasun-datarekin batera nahitaez adierazi beharko da lanpostuen zerrendan.

2026ko martxoaren 27an, Euskera saileko teknikari-trebatzaileak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako teknikari lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun datari buruzko txostena egin du, honako hau proposatuz:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea: Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



“**LEHENENGOA:** Bermeoko Udalak plantila organikoan sortuko duen Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako teknikari lanpostuari C2 C2 ezartzea, bai irakurmenean eta idazmenean, zein entzumenean eta mintzamenean, eta Osoko Bilkurak lanpostu hori lanpostuen zerrendan sartzeari erabakiko duen eguneko derrigortasun data ezartzea.

**BIGARRENA:** Hizkuntza Politikako Sailburuordetzari proposamen hau helaraztea eta txostena eskatzea.”

2026ko martxoaren 30ean, Bermeoko Udalak, Kultura eta Hizkuntza politikako Herri Administrazioetan Hizkuntza normalizatzeko zuzendaritzara lanpostuetan ezarri beharreko hizkuntza-eskakizunen eta derrigortasun daten gaineko nahitaezko txostena eskatu ditu.

2026ko Apirilaren 8an jaso da Kultura eta Hizkuntza politikako Herri Administrazioetan Hizkuntza normalizatzeko zuzendaritzaren aldeko txostena.

**Seigarrena:** Lanpostuen Zerrenda onartzeko ahalmena Osoko Bilkurari dagokio, Tokiko Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Legearen 22.2.i) artikularekin bat.

**Zazpigarrena:** Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu Bategina onartzen duen (TREBEP) urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikuluan xedatutakoa betez, Bermeoko Udaleko Negoziazio Mahaiak onartu egin du 2026ko apirilaren 17an izandako bileran Lanpostuen Zerrendaren aldaketa (abstentzio bat eta gainontzeko baiezkoen bozkarekin)

## Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

**LEHENENGOA:** Bermeoko Udal lanpostuen zerrendan honako aldaketa hau jasotzea onartzea:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketari buruzko martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 7. artikuluan eta 10. artikuluetan ezarritakoaren arabera Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako teknikari lanpostua udal egituraren sortzea onartzea, plantillan eta lanpostuen zerrendan plaza eta lanpostua sortuz.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

### Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



Kodea: 1114101

Saila: Berdintasuna

Lanpostua: Erdi mailako teknikaria

Eskala: Administrazio Orokorra

Izaera: Funtzionarioa

Azpitaldea: A2

Maila: 18

Berariazko osagarria: 21.488,70

Irakurmena eta idazmena: C2

Entzumena eta mintzamina: C2

Derrigortasun data: 2026-04-30

**BIGARRENA:** Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen (TREBEP) urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 34. eta 37.1.c) artikuluetan xedatutakoa betez, Bermeoko Udaleko Negoziazio Mahaia deitzea.

**5.- 21.2 EXEKUZIO UNITATEAN EGINDAKO ERAIKITZEEN ONDORIOZ, 7 ETA 10 PARTZELEI EMANDAKO KALE ZENBAKIAK ALDATZEA ETA 15 PARTZELARI KALE ZENBAKIA EMATEA ONARTZEA.**

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERME0/visor.aspx?id=69&t=251>

## Xedea

21.2 exekuzio unitatean egindako eraikitzeen ondorioz, 7 eta 10 partzeleiei emandako kale zenbakiak aldatzea eta 15 partzelari kale zenbakia ematea.

## Aurrekariak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

### Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Fecha: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



Lehenengoa: 2009ko ekainaren 8an Osoko Bilkurak, 21.2 exekuzio unitateko errepartzelazio proiektua behin betiko onartzea erabaki zuen.

Bigarrena: 2011ko apirilaren 20an Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen, 21.2 exekuzio unitateko urbanizazio proiektua behin betiko onartzea. Proiektu horren aldaketak 2017ko azaroaren 20an onartu zituen Tokiko Gobernu batzarrak.

Hirugarrena: Onartutako urigintz eraikigarritasunaren arabera urbanizazio eta eraikitze obrak egin dira eta, ondorioz, 21.2 unitatean kale berriak sortu dira eta existitzen zirenak luzatu egiten dira.

Laugarrena: 2020ko urriaren 13an, Urigintza Saileko AOTk, egindako urbanizazio eta eraikitze obrak ondorioz sortu diren kaleen izenak eta eraikinen zenbakiak zehazteko beharrezko txostena egin zuen.

Bosgarrena: 2020ko azaroaren 27ko osoko bilkurak 21.2 exekuzio unitatean egindako eraikitzeen ondorioz, eraikin berriei zenbaki hauek ematea: (...)5. partzelan altxatu diren bi eraikinei, Atalde kaleko 2.2 eta 2.4 zenbakiak ematea (...) 3, 4, 7, 8, 10, 11, 12, 13, 14 eta 15 partzeletako eraikitzeen ondorioz sortuko diren kale berrien izenak toponimoen arabera zehazteko beharrezko izapideak egiteko agindua ematea Euskera Sailari

Seigarrena: 2021eko apirilaren 27an, Euskera Saileko teknikariak, kale berrien izenen gaineko txostena eman zuen

Zazpigarrena: 2022ko azaroaren 28ko Osoko bilkurak 5. partzelan altxatu ziren bi eraikinei, Atalde kaleko 2.2 eta 2.4 zenbakien ordezkari, Euskera Sailak proposatutako Kaltzadape kaleko 1 eta 2 zenbakiak ematea adostu zuen.

Zortzigarrena: 2025eko maiatzaren 15ean Erriap Activos inmobiliarios S.L.Uk eskatu du 7, 10 eta 13 partzelentzako, azken eraikinak osatzen duten atarietako behin betiko polizia-zenbakiak.

Bederatzigarrena: 2026ko otsailaren 20ko Osoko Bilkurak, 7, 10 eta 13 partzelei kaltzadape 14, 13 eta 7 zenbakiak ematea erabaki zuen, urrenez urren.



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA00161CB800Y6J9A5M9X217

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2026 09:53:52

DOCUMENTO: 20261449144

Data: 05/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA00161CB800Y6J9A5M9X217



Hamargarrena: 2026ko Otsailaren 16an Plazaetxea Gestión Integral S.L-k eskatu du 15. Partzelarentzako, azken eraikina osatzen duen atarirako behin betiko polizia-zenbakia.

Hamaikagarrena: Zenbakien esleipena, 21.2 exekuzio unitatean eraikitzea aurreikusita zeuden atarien kopuruaren arabera egin zen, eta aipatutako 15. Partzelan bi atari zeuden aurreikusita.

Hamabigarrena: Zenbaki saltoak ekiditeko, beharrezkoa da 7 eta 10 partzelei emandako atari zenbakiak aldatzea.

## Argudioak

Lehenengoa: Urigintza Saileko AOTk emandako txostenaren arabera, existitzen ziran kale batzuk luzatu egin dira egindako urbanizazio eta eraikitze obren ondorioz, eta kale berriak sortu dira.

Kaleen izendatze eta eraikinen zenbakitzearen gainean, honakoa dio Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketaren Erregelamendua onartzen duen 1.690/1986 Errege Dekretuak bere 75.1 artikuluan:

“Los Ayuntamientos mantendrán actualizadas la nomenclatura y rotulación de las vías públicas, y la numeración de los edificios, informando de ello a todas las Administraciones públicas interesadas”.

Zenbakiak emateko orduan, Estatistikako Institutu Nazionaleko eta Autonomia eta toki-lankidetzarako Lehendakaritzak, udal-errolaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak ematen dituen 2020ko otsailaren 17ko ebazpenean (2020ko apirilaren 29ko ebazpenaren bitartez publikatzen da), bere 14.5 atalean, honako hau ezartzen du:

“Numeración de edificios. Los Ayuntamientos deberán mantener actualizada la numeración de los edificios, tanto en las vías pertenecientes a núcleos de población como en la parte diseminada, debiendo estar fijado en cada uno el número que le corresponda.

Además, de acuerdo con el artículo 75 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales, deberán mantener la correspondiente cartografía digital o, en su defecto, referencia precisa de las direcciones postales con la cartografía elaborada por la Administración competente.

Para la numeración de edificios se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

